

	<b>ADMINISTRAZIOA, MANTENTZEA ETA ZORPEKO ZEHATZAK KONTUAN</b>	EPIGRAFEA: <b>84</b>
	Indarrean data honetatik: 2019.07.03	1. orria 6(e)tik

## ORDAINKETA ZERBITZUAK

### 1. Kontuen mantentze-komisioa.

Produktua	Mantentze-komisioa: 0€
<b>Gaztedi / A Kontua eta Plana</b> <b>Kontua/Libreta eta Gazte Plana</b> <b>Etxebizitza Kontua / Gazteentzako Etxebizitza Kontua / Viviendanet</b> <b>Batutabatu Aurrezki Plana / Batutabatu Solidarioa Aurrezki Plana/ Batutabatu Online</b> <b>Fácil Aurrezki Plana</b>	<b>Mantentze-komisiorik gabe, aktibo ez dauden kontuetan izan ezik.</b>
<b>Net Kontua</b>	<b>Mantentze-komisioa hiru hilez behin 15,00 €-koa izango da likidazio-aldi bakoitzean baldintza hauek betetzen ez badira:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Nomina, pentsioa, langabeziagatiko prestazioa edo autonomoena helbideratzea. Autonomoen ordainagiriaren kasuan, aurrekoaz gain, aurrezki-produktuetan (kontuak, aurrezki-planak, epekako gordailuak, inbertsio-funtsak edo pentsio-planak) <math>\geq</math> 2.000 euroko hiruhilekoko batez besteko saldoa izan beharko da.</li> <li>• Leihatilan bi eragiketa baino gehiago ez egitea likidazio-aldian.</li> <li>• Onlineko Bankuko eta Korrespondentzia Elektronikoko zerbitzuak kontratatuta izatea.</li> <li>• Kontua aktibo egotea (*)</li> </ul>
<b>Fácil Kontua / Fácil CE Kontua</b>	<b>Mantentze-komisioa hiru hilez behin 15,00 €-koa izango da likidazio-aldi bakoitzean baldintza hauek betetzen ez badira:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Likidazio aldian, "Entitateen arteko Efektiboko Traspasorik" ez egitea.</li> <li>• "Fácil pack-a" mantentzea: fácil kontua + gutxienez txartel bat lotuta (URREZKO txartelak kanpo) + Onlineko Bankuaren kontratua.</li> <li>• Fácil Kontuaren kasuan, gainera, leihatilan bi eragiketa baino gehiago ez egitea likidazio-aldian.</li> <li>• Fácil CE Kontuaren kasuan, nomina, pentsioa, langabeziagatiko prestazioa edo autonomoen kuota ere helbideratu beharra dago (autonomoen ordainagiriaren kasuan, aurrekoaz gain, kontuko batez besteko saldoa <math>\geq</math> 3.000 euro).</li> <li>• Kontua aktibo egotea (*)</li> </ul>

	<b>ADMINISTRAZIOA, MANTENTZEA ETA ZORPEKO ZEHATZAK KONTUAN</b>	EPIGRAFEA: <b>84</b>
	Indarrean data honetatik: 2019.07.03	2. orria 6(e)tik

Produktua	Mantentze-komisioa: 0€
<p><b>Loturak Kontua / K Kontua / %100 Kutxabank Kontua</b></p> <p><i>Bi produktu horietako edozein kontratatzeak zerbitzu hauek biltzen ditu:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontu horretan <b>txekeen negoziazioagatik</b> sortutako komisioaren hobaria baldin eta txekeak eurotan eta Espainiako finantza-erakunde batean helbideratuta badaude.</li> <li>• <b>Presazkoak ez diren SEPA transferentziak</b> hirugarren batzuei kontu honetatik <b>igortzeagatik</b> sortutako komisioaren hobaria, baldin eta transferentzia horien <b>banakako zenbatekoa ez bada 5.000 € baino handiagoa (likidazio-aldi bakoitzean gehienez 9 eragiketa egin ahal izango dira komisiarik gabe)</b>. Lotura kontuaren kasuan, transferentzia horiek urrutiko bankuaren bidez egin beharko dira (onlineko bankua, telefono bidezko bankua eta kutxazainak).</li> </ul>	<p><b>Mantentze-komisioa hiru hilez behin 18,00 €-koa izango da likidazio-aldi bakoitzean baldintza hauek betetzen ez badira:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Nomina, pentsioa edo langabezia-prestazioa helbideratzea, hilean 600 euroko gutxieneko zenbatekoarekin.</li> <li>• Likidazio-aldi bakoitzean, gutxienez 6 ordainagiri zordunduta.</li> <li>• Onlineko Bankuaren zerbitzua kontratatuta izatea eta, era berean, titular bakoitzaren e-maila eta telefono mugikorreko zenbakia jakinarazita izatea.</li> </ul>
<p><b>Plus Lotura Kontua / Plus K Kontua / %100 Kutxabank Plus Kontua</b></p> <p><i>Bi produktu horietako edozein kontratatzeak Lotura Kontuaren / K Kontuaren zerbitzu berak eta honako hauek biltzen ditu:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Igorpen-komisioaren salbuespena eta <b>Visa Dual</b> txartel bat mantentzea kontu horretako titular bakoitzak.</li> </ul>	<p><b>Mantentze-komisioa hiru hilez behin 24,00 €-koa izango da likidazio-aldi bakoitzean baldintza hauek betetzen ez badira:</b></p> <p>Lotura Kontuko / K Kontuko / 100% Kutxabank Kontuko berberak eta honako hau:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hiruhilekoko likidazioari dagokion hiruhilekoan 300 euroko fakturazioa izatea. Baldintza hau bete ezean, titular horiei dagokien kontu horri lotutako txartelen urteko fakturazio garbia 1.200 euroko zenbatekoa edo handiagoa izatea ere onartuko da.</li> </ul>
<p><b>Negozio Kontua / Nekazaritza Kontua</b></p> <p><i>Produktua kontratatzeak zerbitzu hauek biltzen ditu:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontu horretan <b>txekeen negoziazioagatik</b> sortutako komisioaren hobaria baldin eta txekeak eurotan eta Espainiako finantza-erakunde batean helbideratuta badaude.</li> <li>• Online banku bidez SEPA transferentzia arruntak kontutik igortzeagatik sortutako komisioaren hobaria.</li> </ul>	<p><b>Mantentze-komisioa hilean 15 €-koa izango da likidazio-aldi bakoitzean baldintza hauek betetzen ez badira:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Autonomoen, mutualitate profesionalaren edo langileen aseguru sozialen ordainagiria modu jarraituan helbideratuta izatea.</li> <li>• Batazbesteko hileko saldoa edo ST bidezko hileko fakturazioa (saltoki bakoitzeko) <math>\geq</math> 2.000 euro.</li> <li>• Onlineko Bankuaren (edo Enpresen Onlineko Bankua) zerbitzua kontratatuta izatea eta, era berean, titular bakoitzaren e-maila eta telefono mugikorreko zenbakia jakinarazita izatea.</li> </ul>

	<b>ADMINISTRAZIOA, MANTENTZEA ETA ZORPEKO ZEHATZAK KONTUAN</b>	EPIGRAFEA: <b>84</b>
	Indarrean data honetatik: 2019.07.03	3. orria 6(e)tik

<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Kontuari lotutako <b>ST guztien mantentzeagatiko</b> komisioaren hobaria.</i></li> <li>• <i><b>Onlineko Bankaren</b> kontratua (partikularra edo enpresa) izateagatiko komisioaren hobaria</i></li> <li>• <i><b>Visa Dual Profesionala edo Enpresako Visa Classic txartelaren igorpeneko eta mantentzeagatiko</b> komisioaren hobaria <b>titular</b> bakoitzeko (titularra pertsona juridikoa bada, txartel titularra eta onuradun bat).</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hileko likidazioari dagokion hilabetean 100 euroko fakturazioa izatea. Baldintza hau bete ezean, kontuari lotutako titularren txartel guztien urteko 1.200 euroko edo gehiagoko zenbatekoa duen fakturazio garbia izatea ere onartuko da.  Baldintza hori kontuan helbideratuta Visa Dual Profesionala edo Classic Enpresa motako txartelak badaude bakarrik berrikusiko da. Baldintza hori ez betetzeak inola ere ez du txartelaren mantentze-komisioa kobratzea eragingo.</li> </ul>
<b>Produktua</b>	<b>Mantentze-komisioa: 0€</b>
<p><b>Gazte Nomina Kontua</b>  <i>Produktua kontratatzeak zerbitzu hauek biltzen ditu:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Kontu horretan <b>txekeen negoziazioagatik</b> sortutako komisioaren hobaria baldin eta txekeak eurotan eta Espainiako finantza-erakunde batean helbideratuta badaude.</i></li> <li>• <i><b>Presazkoak ez diren SEPA transferentziak</b> hirugarren batzuei kontu honetatik <b>igortzeagatik</b> sortutako komisioaren hobaria, baldin eta transferentzia horien <b>banakako zenbatekoa ez bada 5.000 € baino handiagoa</b>. Transferentzia horiek urrutiko bankuaren bidez egin beharko dira (onlineko banka, telefono bidezko bankua eta kutxazainak).</i></li> <li>• <i><b>Onlineko Bankuaren</b> kontratua izateagatiko komisioaren hobaria.</i></li> <li>• <i>Visa Dual txartela igortzeagatiko eta mantentzeagatiko komisioaren hobaria (26, 26+, % 100 barne) kontu horretako titular bakoitzeko.</i></li> </ul>	<p><b>Mantentze-komisioa urtean 38 €-koa izango da likidazio-aldi bakoitzean baldintza hauek betetzen ez badira:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Nomina, pentsioa edo langabezia-prestazioa helbideratzea, hilean 600 euroko gutxieneko zenbateko unitarioarekin (gutxienez, urtean 6 sarrera).</li> <li>• Likidazio-aldi bakoitzean, gutxienez 12 ordainagiri zordunduta.</li> <li>• Onlineko Bankuaren zerbitzua kontratatuta izatea eta, era berean, titular bakoitzaren e-maila eta telefono mugikorreko zenbakia jakinarazita izatea.</li> <li>• Likidazio-aldi bakoitzean (urtekoa), 1.200 euroko fakturazio garbia edo saltokietan urtean 12 erabilera, titular horiek kontu horri lotuta dituzten txartel guztietan.</li> </ul>

	<b>ADMINISTRAZIOA, MANTENTZEA ETA ZORPEKO ZEHATZAK KONTUAN</b>	EPIGRAFEA: <b>84</b>
	Indarrean data honetatik: 2019.07.03	4. orria 6(e)tik

Produktua	Mantentze-komisioa
<b>Aurrezki Kontua</b> <b>Ordainsari Berezidun Kontua</b> <b>Korporazio eta enpresen Ordainsari Berezidun kontua</b> <b>Ordainsari Berezidun kontu Instituzionala</b> <b>Index Kontua frankiziarekin</b> <b>Ordaindutako Hipoteka Kontua</b> <b>Kontu Indexatua</b> <b>Lehentasunezko Kontua helbideratzearekin eta gabe</b> <b>Oinarrizko Ordainketa Kontua</b> <b>Gainerakoak</b>	<p>Titularrak kontsumitzaileak diren kontu aktiboetan(*), mantentze - komisioa 15,00 eurokoa izango da hiru hilez behin, Oinarrizko Ordainketa-kontuetan izan ezik. Kasu horretan, komisioa 9,00 eurokoa izango da, finantza-bazterketa izateko arriskuan dauden edo zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen kasuan izan ezik, orduan 0 €-koa izango baita (**).</p> <p>Kontuaren titularrak ez-kontsumitzaileak badira, sortze-epealdiko batez besteko saldoaren % 0,40ko mantentze-komisioa aplikatuko da.</p>

(\*)Kontu aktiboak dira azken 13 hiletan gutxienez eragiketa bat izan duten horiek. Kontratu ez-aktiboen kasuan, Kutxabankek komisio handiago bat aplikatu dezake, aurretik bezeroari jakinarazi ostean, araudiak zehaztutako epearen barruan (% 100eko hobaria mantenduko duten Gaztedi Planen eta Etxebizitza eta Etxebizitza Gaztea kontuen kasuan izan ezik).

(\*\*)Oinarrizko ordainketa-kontua doakoa izan dadin aitortpena lortzeko, nahitaezkoa izango da 2019ko martxoaren 22ko 164/2019 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak betetzea. Errege Dekretu horren arabera, oinarrizko ordainketa-kontuen doako erregimena ezartzen da finantza-bazterketa arriskua duten edo urrakortasun-egoeran dauden pertsonen onurarako.

## 2. Administrazio-komisioa.

Apunte bakoitzeko 0,45 euroko komisioa jasoko da. Ez da komisio hori jasoko apunte hauekin lotuta:

- Interesen eta komisioen likidazioa dela eta sortutakoak.
- Eskudirutan egindako sarrerak eta diru-ateratzeak.
- Txekeen zordunketak.

## 3. Zorpeko zehatzak ageriko kontu korranteetan eta aurrezki-libretetan.

Zorpekoak izateko baimena hautazkoa izaten da bankuarentzat eta, baimena emanez gero, itundutako epeen eta baldintzen arabera, eragiketa mota horietarako bankuak ezarritako interes-tasa publikoa sortuko du.

Kontu korrante eta aurrezki-libretetako zorpeko zehatzak kreditu-eragiketak izango dira helburu guztietarako eta % 4ko komisioa aplikatuko da kontuan likidazio-aldi bakoitzean izan duen saldo zordun handienaren gainean (gutxienekoa 7,00 eurokoa izango da). Komisio hori interesen likidazioekin batera jaso beharko da.

	<b>ADMINISTRAZIOA, MANTENTZEA ETA ZORPEKO ZEHATZAK KONTUAN</b>	EPIGRAFEA: <b>84</b>
	Indarrean data honetatik: 2019.07.03	5. orria 6(e)tik

16/2011 Legeak aipatzen dituen kontuetako zorpeko zehatzetarako (kontsumorako kredituei buruzkoa) eta 20.4 artikulua xedatutakoa betez, komisioaren aplikazioa, interesarekin batera, ez da diruaren legezko interes-tasa 2,5 aldiz UTBa baino handiagoa izango.

#### 4. Zordunketen ostera-lagapeneko komisioa.

Helbideratze-aginduak ez baliogabetzeagatik edo zenbatekoarekin ados ez egoteagatik bidegabeko eragiketen ostera-lagapeneko kudeaketa.

Ostera-lagapen bakoitzeko aplikatu beharreko komisioa 3,00 eurokoa izango da.

#### 5. Eskudirutan egindako sarrerak.

Hirugarren batzuek egindako eskudirutako diru-sarrera bakoitzeko informazio osagarria (kontzeptua) ordainagirian jasotzeagatik (agindu-emaileak hala eskatuta) 4,00 euroko komisioa jasoko da. Sarrera egiten duen pertsonari aplikagarri.

Eskudirutan ordaindutako ordainagiri normalizatu bakoitzeko 4,00 euroko komisioa aplikatuko da. Ordainketa egiten duen pertsonari aplikagarri.

#### 6. Kontu-laburpen osagarriak.

Oro har eta aldizkako izaerarekin, laburpenak, zordunketak, ordainketak eta abar DOAKOAK izango dira.

Bezeroak hala eskatuta egindako laburpenetan, 20,00 euroko komisioa aplikatuko da zatikako urte edo aldi bakoitzeko.

Bezeroak orokorra den aldizkakotasuna baino txikiagoan kontuko laburpenak eskatzen dituzenean, likidazio-aldi bakoitzeko 3,00 euroko komisioa aplikatuko da.

Ez da komisio hori jasoko "saldoa zero ziurtagiriak" igortzeagatik eskaeraren helburua gorabeherak konpontzea denean edo ziurtagiria araudiak ezarritako aginduren bat betez egiten denean.

#### 7. Iraungitako posizio zordunak edo zorpeko zehatzak erreklamatzeko komisioa.

Mailegu edo kreditua ez ordaindutako egoera bakoitzeko, eta ageriko kontuan gertatutako posizio zordun bakoitzeko, betiere bezeroarekin dagokion kudeaketa pertsonalizatua egin ostean (kudeaketa hori sinesgarriro jasota geratuko da), hori erregularizatzeko eskatuz, Iraungitako posizio zordunak edo zorpeko zehatzak erreklamatzeko komisioa sortuko da. Komisio hori kontuan likidatuko da, eta 35,00 eurokoa izango da haren zenbatekoa.

#### 8. Bulegoan egindako "kontzeptudun" sarrerak jasotzearen komisioa.

Kontua bulegoan egindako kontzeptudun sarreren hartzailea denean, komisio hauek ezarriko dira. Haien sortzapena eta likidazioa hilean behingoa izango da.

	<b>ADMINISTRAZIOA, MANTENTZEA ETA ZORPEKO ZEHATZAK KONTUAN</b>	EPIGRAFEA: <b>84</b>
	Indarrean data honetatik: 2019.07.03	6. orria 6(e)tik

HILEKO ERAGIKETA KOPURUA	HILEKO KOMISIOA
0-5 eragiketa	0 euro
6-10 eragiketa	5,00 euro
11-20 eragiketa	12,00 euro
21-40 eragiketa	28,00 euro
41-100 eragiketa	80,00 euro
100 eragiketa baino gehiago	450,00 euro